



2. MAILAKO ORIENTAZIO PLANA 2022/2023



AURKIBIDEA

A- AURKEZPENA	3
B- IKASTOLAKO SAIOAK	4
C- IKASTOLAN AURKEZPENAK ETA IRTEERAK	5
D- BESTELAKOAK	6
E- SAIOKA PLATAFORMAN (ORIENTAZIOA IKASGAIA)	7
F- ORIENTAZIO HITZORDURAKO ESKAERA-ORRIA	8

A-AURKEZPENA

Oiartzo Batxilergo ikastolak Orientazioa eskaintzen die bere **ikasle guztiei**. Ikasle bakoitzaren beharrei erantzun eta era berean guztientzako lagungarri diren orientabideak denengana heltzeko helburuarekin antolatua dago zerbitzua. Etorkizuneko asmoak, aukerak, baldintzak eta eginbeharrak zeintzuk diren jakin eta **zalantzak argitzen joatea** da helburua.

Plangintza bat jarraitzen da. Horrela, ikasle guztiek ikasturtean zehar hartu beharreko erabakien inguruko gaiak lantzen dira, informazio gaurkotua eskuratzen da eta bete beharreko prozeduren jarraipena egiten da. Ikasturteko egutegiari egokitzen zaio plangintza.

Ikasle bakoitzarekin hitzordu bat zehazten da ikasturtean zehar. Orientatzaileak hitzordu horien egutegia aurkezten die ikasleei irailean.

Ikasgeletako informazio saio orokorrak lau izan ohi dira: irailean, azaroan, otsailean eta maiatzean. Saioak gelara egiten dira eskola-ordutegiaren barruan. Orientatzaileak garaian garaiko argibideak ematen ditu eta hitz egindakoari buruzko informazioa banatzen du, paperean nahiz digitalean, Alexia Classroom plataforman.

Ikasle eta ikasle-ohien arteko topaketak egin dira azken bi urteotan. Bizi dugun egoerak nora eramango gaituen jakin ezinik, ezin dugu ziurtatu aurtengo ikasturtean aurrez aurreko topaketak egingo direnik. Hala ere, lanean ari gara bestelako alternatibak bilatu eta gure ikasleek Lanbide Heziketako Ziklo edo Unibertsitateko Gradu bat egiten ari diren ikasleen, ikasketa edo jakintza esparru horiei buruzko ikuspegi ahalik eta osoena eta freskoena jaso ahal izateko.

Galdeketak eta izen-emateak burutzen dira ikasturtean zehar, ikasleen asmoak jaso, kanpoko orientazio ekintzak antolatu eta izen-emate garrantzitsuak gauzatzeko. Ikasleak interesatzen zaizkion ekintzetan ematen du izena.

Ikasleak eskatu diezaioke zuzenean hitzordua orientatzaileari, aurrez horretarako finkatutako ordutegi proposamen bat badago. Bestalde, **Korreo-elektronikoa** erabili daiteke orientatzailearekin harremanetan jartzeko: aolaiz@oiartzoikastola.eus. Ikastolara iristen diren etorkizuneko ikasketei buruzko informazio-anitzak ere korreo elektronikoko bidez birbidaliko dira.

Unibertsitateak bisitatzea eta hauen aurkezpenak entzutea, informazio zuzena jasotzeko aukera ezin hobeak dira. Azaroan, abenduan eta urtarrilean gertuko unibertsitate pribatuekin harremanetan gara. Aurrerago **Lanbide Heziketako Ikastetxeekin eta Euskal Herriko Unibertsitate Publikoarekin**. Ohiko ikasturtetan, martxoan, zehazki, hiru egunez; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusak bisitatu ohi ditugu.

B-IKASTOLAKO SAIOAK

*Datak erreferentziakoak dira

DATA	EKINTZA	BALIABIDEAK	GAIA
Iraila 26-28 (55 min)	1. SAIOA INFORMAZIO SAIO OROKORRA	GELAKA ORIENTATZAILEA SAIOKA PLATAFORMA (Orientazioa ikasgela) ESKUORRIAK	-ORIENTAZIO PLANGINTZAREN AURKEZPENA: egutegia, baliabideak, Alexia Classroom, saioak, irteerak... -INFORMAZIO PRAKTIKOA: batxilergo motak, ibilbideak, link interesgarriak, Lanbide Heziketa,, hautaprobaren ezaugarriak, gutxienerako notak, haztatze parametroak, lehentasunak...
Iraila	GALDETEGIA	Galdetegia online	-IKASLEARI BERE ASMOEI BURUZKO GALDEKETA PASAKO ZAIO.
URRIA	ELKARRIZKETA	BILERA GELAN ORIENTATZAILEA	-IKASLEEKIN BARKARKAKO ELKARRIZKETEI HASIERA EMANGO DIOGU.
Urria 17-21 (20 min)	IZEN-EMATEAK IKASTETXE PRIBATUEN BERRI IZATEKO	GELAKA ORIENTATZAILEA SAIOKA PLATAFORMA GALDETEGIA	-MONDRAGON, DEUSTO, TECNUN ...GERTUKO UNIBERTSITATE PRIBATUEN ESKAINTZA ETA INFOMAZIO SAIOETARA IZEN-EMATEA.
Urria 24-28 (110 min)	2. SAIOA ETORKIZUNARI BEGIRAKO ZALANTZAK	GELAKA COACH: Naroa Susperregi.	-ETORKIZUNARI BEGIRA: Etorkizuneko ikasketen inguruan sortzen diren beldur, antsietate eta ezjakintasunak lantzeko saioa.
Azaroa 28-2 (55 min)	3. SAIOA INFORMAZIO SAIO OROKORRA	GELAKA ORIENTATZAILEA SAIOKA PLATAFORMA (Orientazioa ikasgela) ESKUORRIA	-LEHEN EBALUAZIOKO EMAITZAK. -HAUTAPROBAREN AZALPENA. -EHUK ESKUALDEAN BURUTZEN DUEN INFORMAZIO SAIOA, EHUren AZOKA EGUNAK, AURKEZPENAK, ATE IREKIAK ETA JARDUERA PRAKTIKOA.
Abendua eta Urtarrila (ZEHAZTEKE)	IKASLE OHIEKIN TOPAKETAK	OIARTZOKO ARETO NAGUSIAN	-ELKARRIZKETAK IKASLE - OHIEKIN. -JAKINTZA ESPARRUETAN BEREIZITA: GOI MAILAKO ZIKLO ETA UNIBERTSITATEKO IKASKETEI BURUZKO HIZKETALDIAK.
Urtarrila 19-20 (110 min)	4. SAIOA HEZIKETA AFEKTIBO SEXUALA	GELAKA PSIKOLOGOA psikoterapeuta eta sexologian aditua: Mireia Alduncin	-Nerabeentzako (16-18) heziketa sexual integrala.
Urtarrila 23-27 (55 min)	5. SAIOA INFORMAZIO SAIO OROKORRA	GELAKA ORIENTATZAILEA SAIOKA PLATAFORMA (Orientazioa ikasgela) ESKUORRIA	-HAUTAPROBA MOTA HAUTATU ETA 8 GRADUEN AUKERAKETA EGITEKO ARGIBIDEAK -SIMULAZIO ARIKETA BAT= GALDETEGIA. -INFORMAZIOA: EHUen izena emateko EPE OFIZIALA (URTARRILA/OTSAILTIK – MARTXOA BUKAERARA) -EHUko ATE IREKIETARA ONLINE IZEN-EMATEA EGITEKO ARGIBIDEAK: ELKARREKIN JOATEKO EGUNAK ETA LEKUAK.
OTSAILA 2 (Data baiezatzeko)	GURASOENTZAKO ORIENTAZIO BILERA	OIARTZOKO ARETO NAGUSIAN 18:30	UNIBERTSITATE ETA LANBIDE HEZIKETARAKO SARBIDEA ETA IZEN-EMATE PROZESUARI BURUZKO HITZALDIA.
Otsaila 27-3 (55 min)	6.SAIOA SARBIDEA APLIKAZIO	GELAKA IKT GELAN ORIENTATZAILEA ZUZENDARITZA	-EHUn HAUTAPROBARAKO izen-ematea: lehen aldiz sartu eta ikasleek HAUTAPROBAN IZENA EMAN DUTELA ZIURTATZEN DA. -Bigarren epe bat zabalitzen da maiatzean HAUTAPROBAN aldaketak egin ahal izateko.

Martxoan 20-24 (Baieztatzeke)	7. SAIOA KMK UNITATE DIDAKTIKOA	GELAKA TUTOREAK UNITATEA	-Nerabe zein gazteetan jokabide eta ohitura osasungarriak sustatzeko helburuarekin, prebentzio-planaren barruan, Uzturpe ikastolak eta AGIPAD elakrteak antolatu duen Irri eta farra, goza irribarrari unitatearen lanketa.
-------------------------------------	---------------------------------------	--------------------------------	---

Maiatza 22-26	8.SAIOA INFORMAZIO SAIO OROKORRA	IKASTURTE AMAIERAKO ARGIBIDEAK TUTOREA	-BATXILERGOA GAINDITU ONDORENGO BETEBEHARRAK ETA ARGIBIDEAK -1. ETA 2. DEIALDIKO IKASLE GUZTIENTZAT.
------------------	--	---	---

C-IKASTOLAN ZENBAIT AURKEZPEN ETA IRTEERA

*Datak zehazten joango gara

DATA*	EKINTZA	GAIA	BALIABIDEAK
Azaroa	1.MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN AURKEZPENA	-AURKEZPENA OIARTZON BERTAN -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT -SARRERA OROKOR BAT ETA GERO ARLOKA BANATZEN DIRA TALDEAK GELA EZBERDINETAN	-GELA PROIEKTOREAREKIN -Mondragoneko hiru / lau irakasle -IKASLEENTZAKO TXOSTENAK -IKASTORDUETAN
Abendua	2.DEUSTO DONOSTIAKO UNIBERTSITATERA BISITA	-AURKEZPENA ETA BISITA GIDATUA DEUSTON (DONOSTIAN) -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT	-DEUSTURA JOATEN GARA AUTOBUSEZ -ARRATSALDEKO 15:00etan OIARTZOTIK atera -18:00ak aldera amaitzen da bisita eta autobusean eramaten gaituzte etxera. -Ikasleek INFORMAZIO zehatza entzun, eskatu eta AURRE-MATRIKULAZIO prozesuaren berri eduki dezakete.
Urtarrila	3.TECNUN UNIBERTSITATERA BISITA	-AURKEZPENA eta BISITA GIDATUA TECNUNEN (DONOSTIAN) -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT	-TECNUNERA JOATEN GARA -ARRATSALDEKO 16:00al aldera, GARRAIO PUBLIKOAN HURBILTZEN GARA (Mugi txartela) -18:30ean amaitzen da bisita.
Martxoa	EHUKo ATE IREKIETARA HIRU IRTEERA	-IRTEERAK 3 CAMPUSETARA ARRATSALDEZ. -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT. -IRTEERA OIARTZOTIK -ITZULERA HERRIRA. -18:00etan AMAITZEN DIRA BISITAK. -Garraioaren kostea du IRTEERA BAKOITZAK.	-EGUN BAKOITZEAN FAKULTATE BAT BISITA DEZAKE IKASLEAK.
Martxoa	4.DON BOSCO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXERA BISITA	AURKEZPENA eta BISITA GIDATUA DON BOSCON (Errenteria-Oreretan) -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT.	-DON BOSCORA JOATEN GARA AUTOBUSEZ GOIZEAN

D-BESTELAKOAK

*Datak zehaztu ahala oroituko ditugu.

DATA*	EKINTZA	GAIA	BALIABIDEAK
Urtarrila bukaera Otsaila hasiera	EHUren AZOKA	-AZOKA berdina antolatzen du unibertsitateak 3 campusetan, asteburu ezberdinetan. -LARUNBATA izaten da eta SARRERA librea.	-Gradu guztien aurkezpenak eta mahaiaik jartzen dituzte informazioarekin. Unibertsitateko irakasle eta ikasleak egoten dira. -Bekei buruzko stand bat ere bai. -IKASLEAK ETA GURASOAK joan daitezke, gehien komeni zaien unean.
Martxoa hasieran	EHUko Jardunaldi praktikoak	-EHUko fakultateek eskaintzen dituzten Jarduera praktikoak dira, graduei lotutako esperientziak. -Izena eman behar da lehenagotik, epe jakin baten barruan.	-Ikasleak bere kabuz gerturatu behar du fakultatera esleitzen zaion leku eta orduan.
Apirila eta maiatzean zehar	Lanbide Heziketako Ikastetxeen ATE IREKIAK	-ZIKLOEN AURKEZPENAK eta BISITA GIDATUAK eskeintzen dituzte ikastetxeek. Matrikulazio prozesua ere azaldu ohi dute. -Komeni izaten da aurrez izena ematea. -Beraien Web orrietan ipintzen dituzte datak. Ikastetxe bakoitzak bere datak ditu.	-Ikasleak eta gurasoak joan daitezke -Asteburuetan ere izaten dira.

E- SAIOKA PLATAFORMAN (ORIENTAZIOA IKASGAIA)

Alexia Classroom izango da ikasleen informazio gune nagusia. Bertan, egiten diren saioen aurkezpenak izango dituzte ikusgai, baita Ikastola kanpotik etorriko diren adituen hitzaldien informazioa ere.

Bestalde, baliogarriak zaizkien Lanbide heziketako eskola eta Unibertsitateen webgune eta aldizkari digitaletako link-ak izango dituzte exekita. Bestekak beste:

- Unibertsitateetako webguneak:

EHU <http://www.ehu.eus/eu/home>

DEUSTO <https://www.deusto.es/cs/Satellite/deusto/es/universidad-deusto>

- Lanbide Heziketako webguneak:

EAE lanbide heziketa webgune nagusia <https://ivac-eei.eus/eu/>

- Hezkuntza mapa interaktiboak:

<http://cmapspublic3.ihmc.us/rid=1P4CPN3T9-ZHKR4D-171Q/hezkuntza%20sistema.cmap>

- Ikastola barruko naiz kanpoko galdetegiak:

Ikastola barrukoak:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSc00tTcPC7YrmK-XUCV>

Educaweb; <https://www.educaweb.com/orientacion/intereses-profesionales/>

- Bestelako webgune interesgarriak:

Orientasare <https://sites.google.com/site/orientasare/ikasketak-1/unibertsitatea>

QEDU <https://www.educacion.gob.es/notasdecorte/compBdDo>

- Unibertsitateetako gida akademikoak;

<https://www.uniscopio.com/documentos/Guia-de-Acceso-y-Admision-a-la-Universidad-2021-2022.pdf>

*Hemen azaltzen diren webguneak, Alexia Classroomen aurki daitezkeen adibide batzuk baino ez dira.

F- ORIENTAZIO HITZORDURAKO ESKAERA-ORRIA

HITZORDURAKO ESKAERA ORRIA			
IKASLEAREN IZENA eta GELA:			
Azaldu labur gaia, galdera edo zalantza:			
ELKARRIZKETARAKO ORDUA AUKERATU:			
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA
08:40-09:30	13:40-14:30	08:40-09:30	10:15-11:10
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Orria bete eta orientatzaileari helarazi			
Orientatzaileak hitzordua BAIEZTATU behar du			

HITZORDURAKO ESKAERA ORRIA			
IKASLEAREN IZENA eta GELA:			
Azaldu labur gaia, galdera edo zalantza:			
ELKARRIZKETARAKO ORDUA AUKERATU:			
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA
08:40-09:30	13:40-14:30	08:40-09:30	10:15-11:10
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Orria bete eta orientatzaileari helarazi			
Orientatzaileak hitzordua BAIEZTATU behar du			